

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko maiatzaren 15etik 19rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: BPGd



Datuaren analisia

Euroguneko agregatuan argitaratu den lehen hiruhilekoko BPGd-aren alde aurretiko datuen arabera, BPGd-a % 0,5 igo da 2017ko lehen hiruhilekoan. Herrialdeei begira, Finlandiaren gorakada izan zen aipagarriena, % 1,6ko hazkundearekin. Holandak, bestetik, aurreikusitakoa baino igoera txikiagoa izan zuen (hiruhilekoan % 0,4 vs. % 0,5), 2016ko laugarren hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago. Italian, berriz, igoera bere horretan mantendu zen (% 0,2).

Adierazlearen azalpena

Eurostatek argitaratzen du Barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Euroguneak ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA



Datuaren analisisia

Europako Batzordearen arabera, Euroguneko kontsumitzaileen konfiantza duela hamar urteko mailarik handienera iritsi zen maiatzean. Hileko adierazle horrek hiru hamarren egin zuen gora, $-3,3$ raino, eta maila negatiboan jarraitzen badu ere, daturik onena da 2007ko uztailetik. Aurten, inflazioak gora egin badu ere, langabezia-tasa jaitsi egin da bloke osoan, eta, horrenbestez, hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak bete egin dira Europan. Aurreikuspenen hobekuntza horrek populismoak Europan izan duen beherakadarekin dauka zerikusia, ziurgabetasuna aldetzen duelako. Horixe da, hain zuzen, Frantzia eta Alemanian gertatu dena.


Adierazlearen azalpena

Kontsumitzailearen konfiantzaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Europako Batzordeak argitaratzen du hileroko. Euroguneko milaka kontsumitzaileari gastu pertsonalaren patroiei eta inflazioaren inguruko aurreikuspenei buruz egindako inkestan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdura eragingo du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Estatu Batuetako industria-ekoizpena % 1 igo zen apirilean, aurreko hilean baino sei hamarren gehiago; gorakadarik handiena 2014ko otsailetik. Halaber, manufakturen jarduerak gora egin zuen (% 1eraino), automobil-sektorearen bilakaera onari esker.


Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: INDUSTRIA-EKOIZPENA ETA XEHAKAKO SALMENTAK



Datuaren analisia

Txinako xehakako salmentak urte arteko % 10,7 igo ziren apirilean, martxoko hazkunde-erritmoa baino 0,2 puntu astiroago. Industria-ekoizpena, bestalde, urte arteko % 6,5 hazi zen apirilean; iazko apirilean baino 0,5 puntu gehiago, baina martxoko urteko arteko hazkundearen azpitik (% 7,6).

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Xehakako salmenten adierazleak xehakako salmenta-guneetako diru-sarreraren kopuru osoa neurtzen du, eta kontsumitzailearen gastuaren ahalmen orokorra eta xehakako saltegiaren arrakasta erakusten ditu.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
05/22	Japonia	Balantza komertziala	¥520.7b
05/22	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	0.11
05/23	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
05/23	Alemania	Hiruhileko BPGd SA	% 0.6
05/23	Frantzia	Enpresen konfiantza	105
05/23	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	55.2
05/23	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	56.7
05/23	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	56.6
05/23	Espainia	Balantza komertziala	--
05/23	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	58.0
05/23	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	55.5
05/23	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	56.6
05/23	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	56.5
05/23	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	56.4
05/23	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	56.7
05/23	Alemania	IFO enpresen egoera	113.1
05/23	Alemania	IFO aukerak	105.4
05/23	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	121.0
05/23	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	53.1
05/23	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	53.4
05/23	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
05/23	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	- % 1.8
05/23	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	15
05/24	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	10.2
05/24	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	-% 1.1
05/24	Estatu Batuak	Fed-en ordainsariak	--
05/25	Espainia	Hiruhileko BPGd	% 0.8
05/25	Erresuma Batua	Hiruhileko BPGd	% 0.3
05/25	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	% 0.2
05/25	Estatu Batuak	MoM xehekako inbentarioak	--
05/25	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	238k
05/25	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	10
05/26	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.4
05/26	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 0.9
05/26	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	-% 1.3
05/26	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	97.5
05/26	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
05/26	Estatu Batuak	Aurreikuspenak Mich. U.	--

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Munduko burtsa nagusiek itxiera negatiboak izan zituzten. Asteari, baina, lasai eta igoera txikiekin ekin zioten, petrolioaren prezioaren gorakadari esker.

Asteazkenean, ordea, Atlantikoaren bi aldeetako burtsak gori-gori jarri ziren AEBetako eskandalu politikoen ondorioz. Izan ere, Errusiako kanpo-arazoetako ministroari ustez jakinarazitako isilpeko informazioarekin lotutako arazoaz gain, beste polemika bat azaleratu baitzen; Trumpek FBIko zuzendari ohia seguratasun nazionaleko bere aholkulari ohia ikertzeari uzteko eskatu omen ziola, alegia. Gainera, Temer Brasilgo presidentea ustelkeria kasu batean nahasita zegoela jakin genuen; ustez, Petrobras auziari buruzko testigantzak isilarazteko dirua eskaintzen entzuten zaio grabazio batean. Albiste horrek zirrara handia eragin zuen Brasilgo burtsan eta herrialdearen eraginpean dauden baloreetan (Santander, Telefónica, etab.). Hala ere, astearen amaieran, beldur politikoak desagertu egin ziren hein batean. Alde batetik, AEBek FBIko zuzendari ohi bat izendatu zutelako Errusiak hauteskunde-kanpainan eraginik izan ote zuen ikertzeko, eta bestetik, Amerikako datu makroak onak izan zirelako. Bada, horrek guztiak lasaitasuna ekarri zuen burtsetara. Hala eta guztiz ere, Europa eta Amerikako burtsek negatiboan itxi zuten, Londresko Ftse-k izan ezik. Nikkei indizeak behera egin zuen Yenaren sendotasunagatik, eta Brasileko burtsa, aste honetako kaltetuena, % 8,18 jaitsi zen.

ERRENTA FINKOA:

Europako eta Amerikako bonuen errentagarritasunak behera egin zuen. Trumpen inguruan sortutako polemikak eta agindutako neurriak garatzeko izango dituen zailtasunek interes-tasen jaitsiera eragin zuten. Hamar urterako Amerikako bonuaren errentagarritasunak 9 op egin zuen atzera, % 2,23raino; Alemaniako bonuan, berriz, mugimenduak ez ziren hain nabarmenak izan, eta hamar urterakoak 2 op egin zuen atzera. Espainian, 10 urterako tasa 5 op jaitsi zen, eta arrisku-prima 121 punturaino iritsi zen. Kreditu-merkatuan aldaketa gutxi.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Dibisen merkatuari dagokionez, dolarraren balio-galtzea nabarmendu behar da, Trumpen eskandalu berriaren ondorioz AEBetako zerga-erreforma are gehiago atzeratzeko aukera dagoelako. Lehengaei begira, petrolioaren prezioak gora egin zuen nabarmen; alde batetik, Errusia eta Saudi Arabiak ekoizpena murrizteko hitzarmena 2018ko martxora arte luzatzeko konpromisoa agertu zutelako, eta bestetik, LPEEren hurrengo bileran ekoizpen-murrizketa gehiago iragarriko dituztela aurreikusten delako. Urrearen prezioak ere gora egin zuen, babes-aktibo bihurtuz.

INDIZEAK	PREZIOA	Asteko aldaketa %	Ald. % 2017
MSCI WORLD (Local)	1.450,84	-0,60	6,35
IBEX 35	10.835,40	-0,57	15,86
DJ EURO STOXX 50	3.587,01	-1,39	9,01
DJ STOXX 50	3.235,92	-1,07	7,49
FTSE	7.470,71	0,48	4,59
S&P 500	2.381,73	-0,38	6,38
Dow Jones	20.804,84	-0,44	5,27
NASDAQ	6.083,70	-0,61	13,01
NIKKEI 225	19.590,76	-1,47	2,49
MSCI EMERGENTES (Lo	53.220,06	-0,48	11,69
MEXBOL	49.067,47	-0,73	7,50
BOVESPA	62.639,31	-8,18	4,00
SHANGHAI	3.236,48	0,23	-0,40
Rusia Rts Moscú	1.087,75	-1,09	-5,60

Gobernu mota	Maila	Asteko aldaketa	2017ko ald.
ALEMANIA 2 URTE	-0,68	0,00	0,09
ESPAINIA 2 URTE	-0,28	-0,03	0,00
AEB 2 URTE	1,27	-0,02	0,08
ALEMANIA 10 URTE	0,37	-0,02	0,16
ESPAINIA 10 URTE	1,58	-0,05	0,20
AEB 10 URTE	2,23	-0,09	-0,21
ALEMANIA 30 URTE	1,20	0,01	0,26
ESPAINIA 30 URTE	2,89	-0,08	0,27
AEB 30 URTE	2,90	-0,09	-0,17
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	63,34	0,32	-8,70
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	254,03	-2,92	-34,67

Dibisak	Maila	Asteko aldaketa %	Ald. % 2017
Dolarra / Euroa	1,12	2,49	6,11
Yena / Euroa	124,72	0,71	1,37
Libera / Euroa	0,86	1,31	0,57

Lehengaiak	Maila	Asteko aldaketa %	Ald. % 2017
Petrolio (Brendt)	53,36	6,04	-3,70
Urrea	1.255,91	2,26	8,99

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.